

## ASTARBE SAGARDOTEGIA, 450 URTE SAGARDOAREN BUELTAN



Mendiola baserria.

Edozerk 450 urte irautea zaila bada, aze zailagoa da baserri eta famili oso baten jardunak irautea. Astigarragan badago horren adibide bat, Astarbe sagardotegiak baserriaren eta familiaren 16 belaunaldik aurrera eramandako jardueraren 450garren urteurrena ospatu baitzuten maiatzean. 1563ko maiatzaren 20ko dokumentu batek egiten dio lehenengoz erreferentzia Mendiola baserriari Astarbe sagardotegia dagoen baserriari hain zuzen, eta horregatik maiatzean

festa antolatu zuten astarbetarrek, bere etxeari eta sostengua izan den jarduerari omenaldia egiteko.

Astigarraga eta sagardoaren arteko erlazioa urrutitik datorrela frogatzen du astarbetarrek sagardogintzan duten tradizioa. Aipatzekoa eta goraiatzekoa ere bada 450 urte horietan baserriaren oinordekotza zazpi aldiz emakume batek jaso izana. Horregatik baserriak Mendiola izena mantendu badu

ere, familiaren abizena aldatzen joan da gaur egungo Astarbe izan arte.

Urteentzako jolasak, bertsolariak, trikitalariak...eta beste hainbat izan ziren protagonista 450garren urteurreneko ospakizun jaialdian. Ezagutzen ez zutenek sagardotegia ezagutzeko aukera ere izan zuten prestatutako bisita gidatuekin. 400 pertsona inguru hurbildu ziren ospakizunera eta, iluntzean, sagardo dastaketa, afari-merienda eta kontzertu batekin eman zioten amaiera jaialdiari.

Astarbe familiako kideak pozik eta gustura azaldu dira urteurrenak eta jaialdiak izandako harreragatik. Hur Astarbe da gaur egunean sagardotegiaren ardura daramana eta orain helburu berria dute, 500garren urteurrena ere ospatzea, "450 urte horien atzean lan piloa dago, filosofia aldaketa eta proiektu berri asko ere. Esaterako orain merkaturatu dugun Byhur sagardo aparduna. 500garren urteurrenara iritsiko garen? Bai, iritsiko gara, edo saiatuko gara gutxienez."



Argazkia: Maria Cortés. Astarbetarren lau belaunaldiak urteurrenaren aurkezpenean.

### La sidrería Astarbe cumple 450 años

La sidrería Astarbe ha cumplido 450 años esta primavera, clara muestra de la tradición de Astigarraga, y especialmente de esta familia con la sidra. El primer documento que hace referencia a esta sidrería está datado el 20 de mayo de 1563, fecha en la que la familia ha decidido celebrar este aniversario. Ese documento histórico hace referencia al caserío Mendiola, antigua denominación del hoy en día conocido como caserío Astarbe. Y es que durante estos últimos 450

años, han producido la sidra de este caserío nada menos que 16 generaciones de la familia, y es destacable que en hasta 7 ocasiones el caserío lo haya heredado una mujer. Por ello este caserío ha cambiado de nombre a lo largo de su prolífica historia.

Los astarbetarras aprovecharon el aniversario para hacer una fiesta con bertsolaris, juegos para niños/as, trikitalaris, pintxos, y como no, una cata de sidra, reflejo de la actividad desarrollada por esta familia en este caserío durante tantos años. Zorionak!

450 urtez jarraian, belaunaldiz belaunaldi, Astarbetarrek segida eman diote familiak mendeetan izan duen jardun nagusiari, sagardoari alegia. Astarbe baserriaren, garai batean Mendiola deiturikoaren, lehen aztarna dokumentala 1563ko maiatzaren 20ko dokumentu bat da eta horren ondorioz, pasa den maiatzean urteurrena ospatu zuten.